

PRESTAKUNTZA PLANA 2018/2019

PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA

Izenburua:

3D diseinu eta inprimaketaren hastapenak Tinkercad erabiliz

Modalitatea: Mintegia

Etapak: Etapa guztiak

Parte-hartzaileak: Nafarroako ikastetxeetako irakasleak.

Deitzailea: Iruñeko zonaldeko Hezkuntza Teknologiako aholkulariak.
Hezkuntzako Teknologiak Txertatu eta Ustiatzeko Atala.

Justifikazioa:

3D diseinua eta inprimaketa goraldian dagoen arloa da. Hezkuntzako etapa desberdinetan aukera anitz eskaintzen ditu, hala nola soilik apaingarriak diren objektuak sortu, aurretiaz sortutako modeloak egokitu, edo ikasgela batean edo zerbitzu bat emateko sor daitekeen behar bati pieza, tresna edo osagai multzo baten bitartez erantzun bat eman ahal izan. Ikusmen espaziala lantzeko erabat egokia da eta oso erabilgarria izan daiteke erronkak ebazteko edo sormena garatzeko.

3D diseinuaren munduan lehenbiziko murgiltze bat oso modu errazean egiteko tresnak badaude. Tinkercad da horietako bat: online eta doakoa den softwarea. Bere abantaila nagusiak honakoak dira: erabiltzeko erraztasuna, itxura erakargarria eta oso denbora laburrean trebetasun handia lortzeko aukera. Horrenbestez, hezkuntzako lehen etapetarako edo 3D modelatzean hasteko oso tresna egokia da.

Helburuak:

- 3D-an modu errazean diseinatzen ikasi.
- 3D-an objektuak diseinatu eta inprimatzeko beharrezko softwarea ezagutu.
- Diseinatutakoa gauzatzeko 3D inprimagailu bat erabiltzen ikasi.
- Mintegian landutako edukiak ikasgelan erabili ahal izateko aukeren gainean hausnarketa egin.

Edukiak:

- 3D inprimaketa, hezkuntzarako eta etorkizunera begirako aukerak.
- Tinkercad modelaketarako softwarea.
- Aurrez sortutako diseinuen gordailuen erabilera.
- CURA bihurketa eta laminatzerako softwarea.

- Inprimagailuaren prestaketa, mantentzea eta doikuntza.
- 3D modeloen inprimaketa. Objektuak inprimatzeko aldagai eta aholkuak.
- Inprimatutako objektuen elkarketak.

Metodologia:

3 saio teoriko-praktiko burutuko dira; bakoitza 2,5 ordukoa. Hirugarren saioan, parte-hartzaileek egindako 3D diseinuen inprimaketa egiten hasi ahal izanen da.

Mintegia osatzeko, bertaratu beharreko saioez gain, norberak egin beharreko 2,5 orduko lana bete beharko da, 3D diseinu inprimagarri bat sortuz eta diseinu horren proposamen edo justifikazio labur bat idatziz. Diseinu hori bere ikuskapenerako aurkeztu egin beharko da eta, hala nahi balitz, inprimatzeko aukera ere izanen da.

Hizlaria: Iñaki Ciriza Beloqui. Robotika, Programazioa eta 3D Diseinu eta Inprimaketan irakaslea.

Arduradunak:

Garikoitz Iñigo, Iruñeko ILZ-ko Hezkuntza Teknologien aholkularia.
848431224

informatica.cap.pamplona@educacion.navarra.es

Patxiku Ganboa, Iruñeko ILZ-ko Hezkuntza Teknologien aholkularia.
848431226.

informatica2.cap.pamplona@educacion.navarra.es

Tokia: ikasNOVA ikasgela, Santo Domingo karrika 8, Iruñea.

Datak: 2019ko urtarrilaren 31 eta otsailaren 7 eta 14a.

Ordutegia: 17:30etik 20:00etara.

Iraupena: 10 ordu

Plaza kopurua: 18

Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua: 8

Izena emateko epea:

Izena emateko azken eguna 2019ko urtarrilaren 27a da. Esteka honen bitartez egin behar da:

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/inscripciones-3/>

Hautatzeko irizpideak:

- Zientzia eta Teknologia Berrikuntzarako Ikastetxeen Sareko partaide diren ikastetxeetako irakasleak.
- Izena ematearen ordena.

Hizkuntza: Gaztelania

Oharrak:

- Aurrerantzean prestakuntza ikastaroekin zerikusia duten abisu eta jakinarazpen guztiak Hezkuntzako Sare Publikoko irakasleek duten PNTE kontu ofizialera bidaliko dira (erabiltzailea@educacion.navarra.es). Ikastetxe pribatu eta itunduetako irakasleei abisu eta jakinarazpenak Educan ezarria duten helbide elektronikora iritsiko zaizkie.
- Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda, honako web-orri honetan: <http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/onartuen-zerrenda/>
- Ziurtagirien kudeaketarekin sortzen diren galderak ILZ-ko idazkaritzan erantzunen dira; Telef: 848 424775, 848 424776, 848 426232; secretaria.cap.pamplona@educacion.navarra.es.
- Irakasle bat onartu badute jarduera egiteko eta ezin badu egin, deialdian agertzen den jardueraren arduradunari esan beharko dio posta elektronikoko baten bitartez, baja emateko jarduera hasi baino lehen. Bestela zehapen-prozesua abiaraziko da, eta irakaslea ezin izanen da 5 hilabetez sartu izena emateko plataforman; ondorioz, galduko du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan izena emateko aukera. Zehapen horrek ez du inor salbuetsiko ikasturtean prestakuntzako 35 ordu egiteko beharkizuna betetzetik.
- Urrutiko prestakuntzako ikastaroei dagokienez, ikastaroa hasten den egunetik 15 eguneko epean irakasleak ez badu "Nahitaezko lana: aurkezpena" izeneko lana entregatzen, automatikoki baztertuko da ikastarotik. Baztertuz gero, gorago aipatutako zehapen-prozesu bera aplikatuko zaio.
- Prestakuntza jarduneko irakasleek soilik egin dezakete eta haiei baino ez zaie ziurtatuko; salbuespena amatasun, adopzio edo harrera-lizentzia duten irakasleak dira, abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretuan ezarri bezala. Aldi baterako ezintasun egoeran egonez gero, ezinezkoa da prestakuntzara joatea.
- Ziurtagiria eskuratzeko saio presentzialen %85era joan beharko da eta saio bakoitzaren sinaduren orrian bolaluma ezabaezinarekin sinatu. Ez da kontuan hartuko sinatu ez den saiorik; hau da, ez da onartuko bestelako bertaratze-ziurtagiririk. Prestakuntzaren diseinuan lan praktiko bat egitea sartuta badago, bertaratzeaz gain, nahitaezkoa izanen da lanak aurkeztea ziurtagiria lortzeko.